

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asenzio Irizar Goikoetxea

*Donostia,
Gipuzkoa
(1926-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Barkaztegi-Berri etxean jaioa, Martutenen. Zortzi senide ziren, hiru mutil eta bost neska. Gurasoak ere Martutenekoak zituen. Aitak era guztietako gurdiak egiten zituen: zaborra biltzeko gurditxoak, baserriko gurdiak... egurrezkoak denak ere, eta hiru semeak berarekin hasi ziren lanean. Asenziok garraio lanak egiten zituen arotz lanak baino gehiago, eta kontuak eraman. Beti izan da trebea matematiketan, nahiz eta eskolan 12 urte arte bakarrik ibili, Okendotegin. Denborarekin gurdi lantegia karrozeria bihurtu zen, autoak konpontzeko tokia. Asenzio automobila izan zuen lehengotakoa izan zen Martutenen. Soldaduska Tetuanen egin zuen, Afrikan. Astigarragako Sabina Goñirekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-039

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-20
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Karrozerian egurrezko karroak egiten zituzten

- **Erref:** DON-039/002
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:05:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Karrozeria zuten etxe azpian, etxeko hiru semeak bertan aritzen ziren lanean, aitarekin. Egurrezko karroak egiten zituzten. Egur haitza eta alkazia erabiltzen zuten gehien, mendira joaten ziren egur bila. Egurra mozteko esku zerrak erabiltzen zituzten, mota guztietakoak, denborarekin makinaria jarri zen eta asko erraztu zen lana. Bera bulego lanetan aritzen zen gehiago. Aitak jarri zuen tailerra, eta egun bere semeetako batek jarraitzen du bertan lanean, karroen ordez kotxeak egiten dituelarik.

2. Okendotegira eskolara

- **Erref:** DON-039/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:02. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Okendotegira joan zen eskolara, neskak eta mutilak elkarrekin egon ziren eskolan. Elkarrekin euskaraz aritu arren, eskolan dena gaztelaniaz egin behar izaten zen. Lau edo bost urterekin hasi eta 12 urte bete zituen arte ibili zen eskolan. Gero partikular batekin hasi zen ikasten, harekin euskaraz gehiago egiten zuen gazteleraz baino, denetik ikasten zuten Juanitarekin.

3. Aingira bila errekan

- **Erref:** DON-039/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Asko jolasten zuten lagun artean: kanikekin, pilotan... Sokasaltoa nesken kontua izaten zen. Halere, zenbaitetan aritzen ziren neskak eta mutilak elkarrekin jolasean. Erreka inguruan ere ibiltzen ziren, aingirei segika-eta, batzuetan harrapatu ere harrapatzen zuten baten bat!

4. Udararen osabaren etxera Donostiara

- **Erref:** DON-039/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak

Laburpena:

<p>Udaran urtero osabaren etxera joaten zen Donostiara. Lehengusuak zituen bertan, Donostian, haiekin joaten zen hondartzara.</p>

Transkripzioa

-Bai, han osaba [...] zan batian ta hara juten giñan urtero juten nitzan ta han ikasi nun igeri.
-Eta, noiz juten ziñen urtero udan?
-Udaran, bakaziyuetan hara.
-Hara, a orduan ondo!
-Bai, bai.
-Eta danok juten ziñeten etxeko guztiyak?
-Ez ez, ni bakarrik.
-Zu bakarrik?
-[...] Ni askotan goatu naiz haikin ze ote ez ziyoten gustatzen o zer, baiño osabak osabak beti ni eamate, geo ne edadekuak, ne edadekuak nittun han eta, ni juten nitzan.
-Orduan tranbian?
-Bai, tranbian ordun klaro.
-Kontxara han baiñatu ta?
-Bai. E han eun batzuk pasatzen nittun han.
-A han egun batzuk eta noren etxian geratzen ziñan?
-Osaba.
-A osaba?
-Osaba, osabak geneuzkan bai. San Martin "cuarenta y nueve". Oandik han do ta oandik e etxia do ta azentzoreik'pe, eta oain e in det hamar, hamar, hirurogei urteko kontukin hoik azentzoria zuten orduako, bai, laugarren bizitza.
-Eta zenbat urtekin hasi ziñan zu lanian aitakin?
-Aitakin? Pues izango zian hamabost hamasei bat urte o...
-Hamabost orduan gazte, orduan hola hasten zan ez? Lanian, gazte?
-Bai, klaro, bai, klaro, gauza haundiik ez gendun ingo baiño behintzat han e zerbaite behintzat...
-Eta, ze gehio iten zenun, bueno udaran esan dezu juten ziñala e hara osaban ta etxera eta han, hango lagunak eta ze zian zure lehengusuak ala?
-Bai, bai, lehengusuak nittun han, klaro lau lehengusu neskakin, bost, zian lau anai eta neska bat. Zaharrena ne edadekua ta lau anaiyak hillak daude ta neska bakarra biziik. Suertia da hoi'de.
-Eta ze iten zenuten han, hondartzara jun?
-Han han beti hondartzara.
-Ta han jolasian ibili?
-Han jolasian ibilli, eta zikin-zikin etorri hondarrez beteta etxian erritan danak eta, halare segi hurrengo [...] ostea e! Baiño ondo pasatzen gendun.

5. Martuteneko erresidentziara pilotan eta futbolean aritzera

- **Erref:** DON-039/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:11:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:

Martutene txikiagoa zen garai hartan orain baino. Erresidentzia 1932an hasi ziren egiten, 1936rako asko eginda zegoen, baina lekua geratzen zen pilotan eta futboleko aritzeko, eta hara joaten ziren jolastera. Lagun artean euskaraz aritzen ziren, lehengusuekin ordea, gaztelaniaz.

6. Sagardotegira astean behin

- **Erref:** DON-039/008
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Astean behin joaten ziren sagardotegira, astearte edo asteazkenetan. Zortziak aldera joaten ziren, eta hamarrak aldera arte egoten ziren bertan. Tortilla, bakailaoa eta txuleta jaten zuten ia beti, eta afalostean tokan aritzen ziren. Otordua ordainduz gero, nahi adina sagardo edan zitekeen, orain bezala. Handik tabernaren batera joan, kafea eta kopa hartu eta etxera erretiratzen ziren.

7. Karrozeriako kontuak bere kargu

- **Erref:** DON-039/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:15:12. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lanbideak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Karrozeriako kontuak berak eramaten zituen. Lan asko baldin bazen egiteko, afalostean ere karrozeriara jaisten ziren lanera, eta hamarrak aldera arte aritzen ziren lanean. Arrebak arropak garbitzen aritzen ziren. Baratzea ere bazuten, txikia ordea.

8. Hernani, Erreterria eta Oialumera dantzan aritzera

- **Erref:** DON-039/010
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Hernanira, Erreteriarra eta Oialumera ere joaten ziren dantzan aritzera. Hernanira tranbian joaten ziren, Erreteriarra trenez. Luistarren kongregaziokoa izan arren, neskekin dantzan ere aritzen ziren erramerian. Angeluserako itzuli behar izaten zuten etxera, neskak lehenago mutilak baino.

9. Arrosarioa eta kantuak etxean

- **Erref:** DON-039/011
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Ama etxean denon zain egoten zen, arrosarioa errezzatzeko, egunero errezzatzen zuten arrosarioa. Kantatu ere kantatzen zuten etxean, Cara al Sol izan ezik beste kantu denak ia. Saguekin gertatutako istorio bat ere kontatzen du Asenziok.</p>

Transkripzioa

-Gue amak majiña bider denok juntatu zai errosaiyua errezzatzeko, eta batematek txoakei batek esaten baldin bazun orduntxe [...] berritotik hasi, harek, haek eakutsi zigun ixil-ixilik errosaiyua errezzatzen.

-Eta egunero-egunero errezzatzen zenuten, errosaiyua?

-Bai, egunero bai.

-Eta oherako errezzatzen zenuten zerbait, ala?

-Zer?

-Ohera...

-Ohiyera, bai, afaldu, errosaiyua errezzatu ta ordun ohiyera.

-Eta kantatu ta iten zenuten etxian?

-Bai, gu bai, [...] kantatzen genun.

-Ta ze kantatzen zenuten?

-Buu klase guziya, "cara al sol" ta hoik ez baiño gaiñeakuan... gaiñeakuan, txoakei batzuk e iten giñun.

-A bai?

-Bai, batian galdu nittun hilleete pareateako puntuk etxian, nik broma ein ta. Aber ba jostatzen bageiltzan ta xagun kabiya billatu gendun, ta nik lau poltsaatian sartu nittun ta kajoiya zun zeak, mahaiyak, han sartu. Arrebaatek iiki zun hasi zian xaguk saltoka, aittu nittun earrak, etxetik biali ez zitenian. Baiño broma zan, [...] Joe! Ondo pasatzeatik ein ta, dana gaizki hartu!

-Eta kantatu ta noiz iten zenuten?

-Noiznahi, guk etxian asko kantatzen genun.

-Eta ze abesti? Euskal abestiyak ere bai?

-Bai bai, jenealian euskeraz bai.

-Euskeraz?

-Bai.

-Ta akordatzen zea batenbatekin?

-Aspaldi eztittu kantatu ta.

-Baiña elizako kantuak-eta, ala ez?

-Ba igual elizakuak ere, ordun bat hasten zanian harei segittu. San Inaziyo

bai, San Inaziyo, hoi, hoi askotan kantatu deu. Geo familiartian ohittura genun eun hoi zeletatzeko, San Inaziyo euna zeletatzen genun, eta beti San Inaziyo beti kantatzen genun.
-Ze "Inazio gure patroia haundia"?
-Bai, bai, hoi kanta earra da hoi.

10. Bertso-saioak eta bertsolariak

- **Erref:** DON-039/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Lehengo bertsolariak gehiago gustatzen zaizkio oraingoak baino. Bertsolariak sagardotegietan-eta aritzen ziren bertsotan. Txirrita, Basarri, Uztapide, Xalbador... horiek denak bertsotan entzuna da.</p>

11. Soldadutza Tetuanen

- **Erref:** DON-039/014
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:27:04. **Bukatu:** 00:28:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Afrikan egin zuen soldadutza, Tetuanen. Lagun bat bertako ospitaleko moja baten lagun egin zen, eta ospitalean ingresatu zuten denbora batez, soldadutzako lanetatik libratzearen. Bertan ezagutu zuen emakume batek esandakoak gogoan ditu oraindik.

12. Soldadutzako gutunak

- **Erref:** DON-039/016
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:30:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Tetuango ospitale hartan ezagututako emakume batek esandakoak kontatzen ditu. 22 urte zituenetik 24 bete arte egon zen soldadutzan, ordurako ezagutzen zuen bere emaztea izango zena, gutunak idazten zizkion, gaztelaniaz beti.</p>

Transkripzioa

-Han, e este gurasuak esaten zuenakin ezkondu bihar zuten, eta esaten zuten: "holako 'te vas a casar tal día'". Ta oandik ez zekin zenekin ere, ta igual beak baiño hamabost urte gehiyo zittuna.

-Hori, emakume hori?

-Bai, horrek esan zun, horrengatik agradezitzen zun gurasoik ez izatia, hala beak nahi zunakin ezkonduko zala!

-Joe!

-Hoi, hoi hoi legiak e!

-Ordun beste kultura bat, desberdiña.

-Bai.

-Eta zenbat urtekin jun ziñan soldaduskara?

-Hoitabikin.

-Hogeitabi urtekin?

-Bai. Hoitabikin jun ta hoitalaukin etorri.

-Eta zenbat urtekin ezautu zenun emaztia izango zana?

-A bela!

-Emaztea: Hemeretzi urtekin.

-A hemeretzi urtekin?

-Emaztea: Bueno bai hogeitabi urte eo, ya eskribitzen ziten karta zeatiken, soldaduskatik.

-Eta euskeraz eskribitzen zenun? Edo erderaz?

-Ez, erderaz, eskribittu, eskribittu eske, bai, euskeraz eskribitzen netzako zail xamarra izandu da.

-Dana, eskolan ta erderaz einda ba...

-Karo!

13. Astigarragan ezkondu ziren

- **Erref:** DON-039/017
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:31:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Astigarragakoa da bere emaztea, eta Astigarragan bertan ezkondu ziren. Ezkon bidaia ere egin zuten, Iruñera joan ziren lehenengo, eta handik Bartzelonara gero. Hiru seme-alaba dituzte.

14. Gidabaimena eta karrozeriako lanak

- **Erref:** DON-039/019
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:35:43. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

<p>Eukor automobila erosi zuen, Bartzelonan egiten zituzten. 22 urterekin atera zuen gidabaimena. Soldadutzatik itzuli zenerako kamioientzat kaxak

egiten zituzten karrozerian, eta, geroago, kotxeak konpontzeari ekin zieten. Anaia arotz fina zen, berak kontuak eta garraio lanak egiten zituen.</p>

15. Muinoetatik ikusten zuten bonbak nola erortzen ziren Irun aldean

- **Erref:** DON-039/020
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:41:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Hamar urte inguru izango zituen bonbardaketa hasi zenean. Lagunak muinoetara igotzen ziren eta handik ikusten zuten nola erortzen ziren bonbak Irun aldean. Bi anaia frontera joan ziren eta etxean ere izan zuten familia bat ezkutatuta.</p>

16. Mutil koskorretan hasi ziren txapela janzten

- **Erref:** DON-039/022
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:43:27. **Bukatu:** 00:45:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Mutil koskorretan hasten ziren txapela janzten, jendeak 20 urte inguru bete arte erabiltzen zuen txapela. Anaia eta arreba zaharrenei zuka hitz egiten zien, gazteenei eta lagunei hika, eta gurasoei berorika.</p>

Transkripzioa

-Eta jazteko modua eta, zu mutikua ziñala bueno ze, hemen e erabiltzen zan abarkarik eta hola, ala?

-Ez, guk jazteko ez deu prolemaik izautu, gu ez dakit gu ama nola arreglatzen zan baiño jazteko ez genula prolemaik izandu guk.

-Eta ze, nola jazten ziñeten?

-Zea abarkak, abarkak ibilliko giñun? Seguraski ibilliko genun.

-Eta txapela-eta?

-Bai [...] nik ez, ni bela aspertzen nitzan txapelakin.

-Aspertu iten ziñan txapelakin? Eta zenbat urtekin hasten zian mutikuak txapela erabiltzen? Umetan ez da, ez da erabiltzen, ez?

-Bai mutil koskorretan bai, baiño hemen'e jende asko behintzat hogei hoitabost urte arte ibiltzen zuna garai haitan. Hoge ta hogeitabost urte arte bai, geo hemen bolara izandu zan ordun ya, arrunt galdu zan baiño, hogei bat urte arte o behintzat jendiak ibilli iten zun.

-Eta zuk zure anaiekin-ta hika hitz egiten zenun ala zuka?

-Batekin hika ta bestiakin zuka, zaharrenai zuka ta nere segidakuai hika.

-Eta, errespetu... eta arreberi?

-Arrebairi're azkeneko biyak hika, bestiaidi zuka.
-Bestiak zaharraguak dia?
-Zaharragoi zuka. Ta aitai ta amai beorri.
-A bai e?
-Bai, gu beti, gu beti bai.
-Aita, bi, biei? Orduan ez zan, berorika ez zan apaizei bakarrik?
-Ez, ez.
-Gurasuei ere bai? Eta lagunekin hika ingo zenun?
-Hika, laun artian bai.

17. Baserriko lanak eta zabor bilketa

- **Erref:** DON-039/024
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:46:23. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Baratzea bai, baina animaliarik ez zuten baserrian. Ondoko baserrikoekin harreman handia zuten, baina bakoitza bere etxeko lanez arduratzen zen, auzolanerako joera handirik ez zuten. Garai hartan zaborra eskuzko karroekin biltzen zuten, karroak tapa eta zulo bat izaten zuen, pala eta erratza gordetzeko, eta bi edo hiru lagunen artean eramaten zuten. Donostia barrenean ibiltzen ziren zaborra batzen.</p>

Transkripzioa

-Ez dakit, ta zuek baserria zenuten baratz txiki bat bai ta animaliak eta ez zenuten zuek animalirik eukiko, nahikua bazenuten?
-Animalirik ez, aldamenian ikusten genun animalik.
-Eta bazeon ohitura ondoko baserritan ta laguntzeko? Zuek juten ziñeten laguntzera beharra zegonian ba ez dakit ba?
-Ez. Gu [...] etxeko lanak eta.
-Zuek e berandu arte ibiliko ziñeten?
-Relaziyo haundiya aldamenekuakin ta baiño, hola launtzeko ta ez...
-Eta lehen karruan artian aipatu dezu basura, basura biltzeko karrua ta, lehen nola, nola aldatzen zan basura ta? Zaldi-karruakin, ala?
-Ez baiño zaldi-karruakin baiño, eitten zan lehenbizi eskuzko karrua zuten, ta eskuzko karruak zuten tapa, eta zulo bat pala ta zea, eskoba ateatzeko.
-A, klaro.
-Horrekin ibiltzen zien bi hiru laun, batek karrua ibiltzeko ta bestiak garbittu ta zikiñak botatzeko, ta hoitakuak, hoitakuak, hoitakua erailtzen zan gue etxian.
-Eta hemen ibiltzen zian, ala?
-Ez hemen ez, Donosti barrenian.
-A, Donosti barrenian.
-Ordun plastikorik eta ez zan erabiltzen, ez?
-Karo, karo.
-Ez, txerrijana ta baserritarrek batzen zuten, ez? Esnia partitzen zuten tokiyan?
-Bai, bai bildu itten zuen bai, baserritarrak.

18. Gaztetako denbora-pasak

- **Erref:** DON-039/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserri bakarrak mantentzen du ganadua, lehen ia baserri guztietan egoten zen, ganadu askoko baserririk ez zen, ordea. Astigarragan idi apustuak izaten ziren, eta ikustera joan ohi ziren. Frontoira ere joaten ziren denbora-pasa, txorien habiak eta igelak harrapatzen ere aritzen ziren.

19. Medikua eta bizarginak

- **Erref:** DON-039/026
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Bataioa eta jaunartzea Buen Pastorren egin zituen, artean parrokia egin gabe zegoelako. Etxean jaio zen Asenzio, zaldiz etortzen zen medikua Altzatik. Garai hartan bizarginak ere baziren bertan, Antselmorenean lehendabizikoa, askotan joaten ziren ilea moztera bertara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com